

## ARDIEGAIK ILGO

<i>Elorri (ELR)</i>	<i>Arantzazu (ARAN)</i>	<i>Elorriko lorea (ELRL) (1)</i>
Artzai onari begitu neutsan kurtze gorriko latzean. Nire Aitzaiak ez eukan zarpa etzanik soiñean.	Artzai Onari begitu neutson. Artzai Ona gurutzean. Nire Artzaiak ez eukon Zati osorik soiñean.	...GERO, (2) Artzai Onari <u>so egin</u> [begitu] neutsan “Kurtzipizio” ganean. Nire artzaiak ez eukan zati osorik soiñean.
Landa ta urien ederra izana –bildots-muskil bat bailitzan–, euli t’eltxoen zer-jana t’odol ta autsezko miña zan.	Semeetatik ederren zana Giza itxura galdurik, Yaseko gorputz lerdena odol, auts, txistuz loiturik.	<u>Gizakumerik</u> [Tajuz ta arpegiz] ederren zana giza aiturea galdurik, iaseko gorputz lerdena odol, auts, txistuz loiturik.
Billatu neban Artzai Onagan begirakun maitatia. Irri bat billatu neban: Artzai Onaren irria.	Billatu neban Artzai Onagan Begirakune eztia. Irri bat billa neban Artzai Onaren irria.	Billatu neban Artzai Onagan <u>begirakun maitatia</u> [begiratu bat eztia], irri bat billatu neban, Artzai Onaren irria.
Itz bat eskatu neutsan negarrez. Ta ixillik ezpan ubelak. Samin ta ikara-mozkorrez malgutu nitun belaunak.	Itz bat eskatu neutson negarrez. Ixillik ezpan ubelak! Barruko samintasunez Batu nebazan belaunak	Itz bat eskatu neutsan negarrez. –Ixilik ezpan ubelak!– Barruko samintasunez malgutu nitun belaunak.
Arnasik etzan. Oiartzunean bizi zan otsa bakarrik: “Ardien bizitz naitean ez neuke iltea damu nik”	Gomuta nitzan Artzaiak emon Berbarik samurrenagaz: “Ardiek bizi daitezen Ardiegaitik ilgo naz”.	Gomutau nintzan gero batean berbarik samurrenagaz: “ardiek bizi daitezán ardiekaitik ilgo naz”
	Ardiegaitik ilda egoan (3) Artzai Onena kurtzean.	

### *Oharrak:*

Olerki honen hiru aldaerak (ELR, ARAN eta ELRL) aski ezberdinak dira. Zein da aurrena? Seguruenik hiru bertsioren aurreretik bazen beste testuren bat, ELRL-ko aldaeraren oso hurbilekoa. Hasierako bertsiola aldatuz joan zen gure olerkaria, eta baita zerbait kenduz edo gehituz ere. ARAN aldizkariak bi lerroak erantsi zizkion, beste bietan jaso gabe geratu zirenak. Azken aldaera ELR liburukoa da, jakina.

ELRL-ko bertsiola “...GERO,” lerroarekin hasten da; hasierakoan olerkiaren titulutzat har zitekeen nonbait; baina gero eskuz erantsi zizkion hirupuntukoa eta koma, olerkiaren lehen lerro bihurtuz argi eta garbi; hala ere, zalantzetan geratu zen nonbait, eta ezabatzeko markak edo eginda daude gainean. “Ardiekaitik ilgo naz” amaitzen da ELRL-koa. ARAN-ek horixe hartu zuen titulutzat; gainera bi lerro erantsi zizkion azkenean: “Ardiegaitik ilda egoan / Artzai Onena kurtzean.”

- (1) ELRL-ko makinazko testuaren gain aldaketak egin zituen eskuz; forma berriak azpimarratuta daude, eta ezabatu zituenak kortsxeteen artean.
- (2) “GERO” hitza olerkiaren gainean zegoen idatzita, hizki larriez eta eskuinaldean, olerkiaren titulutzat interpreta zitekeen. Gero eskuz idatzi zuen aurreko hirupuntukoa, eta atzeko koma, olerkiaren lehen lerro bihurtuz: “...GERO,”. Geroago zalantzak zituen nonbait, eta alboan galdera zeinu handi jarri zuen; azkenik hitzaren gainean arrasto handia bota zuen, ezabatzekoa zela adierazi nahian edo.
- (3) Olerkiaren azken lerroa titulutzat hartu ondoren, badirudi aldizkarirako erantsi zituela bi lerro hauek; bertsoa osatu gabe utziz gainera.